

Deskripzioa:	<p><i>Coliseoaren laguna</i> txartela lortzea. Txartelaren ABANTAILAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Eibarko Udalak programatutako edozein ikuskizun eta kontzertutan, % 30eko deskontua.• Coliseoko zine-aretoen sarreretan, % 40eko deskontua.• 5 euro edo hortik beherako sarrerek ez dute deskonturik izango. Aurrekoa gorabehera, larunbat eta igandeetan adingabeekin egiten den haur zinemako lehen saiora «Coliseoaren Laguna» txartela daramaten pertsonak beren sarreraz gain beste bi sarrera erosteko eskubidea izango dute, eta horiei ere aurreko puntuan ezarritako deskontua aplikatuko zaie. Prezioak 50 zentimotan biribilduko dira eurotik eurora. Deskontuak ez dira bateragarriak izango.
Hartzailea:	<p><i>Coliseoaren Laguna</i> txartela eduki nahi duten pertsonak.</p>
Eskaera epea:	<p>Urte osoan zabalik.</p>
Beharrezko dokumentuak:	<p>Tarifa ARRUNTA (20 €): Eibartik kanpo erroldatutako pertsonentzat eta tarifa bereziak hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten Eibarren erroldatutakoentzat. Txartela eskatzeko BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none">• (*) Eskatzailearen argazki bat, egin berria, karnet tamainakoa eta koloretakoa. <p>Tarifa BEREZIA: Eibarren erroldatutako 65 urte edo gehiagokoak (15 €): Eibarren erroldatuta egon eta 65 urte edo gehiago dituzten pertsonentzat. Txartela eskatzeko BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none">• (*) Eskatzailearen argazki bat, egin berria, karnet tamainakoa eta koloretakoa. <p>Tarifa BEREZIA: Eibarren erroldatutako 30 urtetik beherakoak (15 €): Eibarren erroldatuta egon eta 30 urtetik behera dituzten pertsonentzat. Txartela eskatzeko BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none">• (*) Eskatzailearen argazki bat, egin berria, karnet tamainakoa eta koloretakoa. <p>Tarifa BEREZIA: Eibarren erroldatutako DBEren edo DBLeren onuradunak (0 €): Eibarren erroldatuta egon eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren edo Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzaren titularrentzat eta haien bizikidetzaren unitate barruan sartuta dauden pertsonentzat. Txartela eskatzeko BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none">• (*) Eskatzailearen argazki bat, egin berria, karnet tamainakoa eta koloretakoa.• Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntza jasotzen dela egiaztatzen duen agiria. <p>Tarifa BEREZIA: Eibarren erroldatutako langabetuak (0 €): Eibarren erroldatuta egon eta lanik ez duten pertsonentzat. Txartela eskatzeko BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none">• (*) Eskatzailearen argazki bat, egin berria, karnet tamainakoa eta koloretakoa.• Langabeziaren egiaztagiria (Langilearen egungo egoerari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra 15 egunetik beherako epean eginda). <p>Tarifa BEREZIA: Eibarren erroldatutakoak, gurasoak langabezia dauzkaten 30 urtetik beherakoak (0 €): Eibarren erroldatutako 30 urtetik beherakoentzat, haien gurasoak edo tutoreak lanik ez badute (guraso bakarreko familien kasuan, nahikoa da gurasoetako batek lanik ez izatea). Nahitaezkoa da 30 urtetik beherakoa eta haren gurasoak edo tutoreak etxebizitza berean erroldatuta egotea. Txartela eskatzeko BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none">• (*) Eskatzailearen argazki bat, egin berria, karnet tamainakoa eta koloretakoa.• 30 urtetik beherakoaren gurasoak edo tutoreak lanik ez dutenaren egiaztagiria (Langilearen egungo egoerari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra 15 egunetik beherako epean eginda). <p>(*) Aurreko urtean Coliseoaren Laguna txartela egin zuten pertsonak, norberen irudian aldaketa nabarmenik izan ez badute, ez dute argazkia aurkeztu behar.</p>

Tramitazio kanalak:



PEGORA (Herritarren Zerbitzurako Bulegoa) Untzaga plaza 1. Beheko solairua.

Tasak:	<ul style="list-style-type: none"> • Tarifa ARRUNTA: 20 €. • Tarifa BEREZIA: Eibarren erroldatutako 65 urte edo gehiagokoak: 15 €. • Tarifa BEREZIA: Eibarren erroldatutako 30 urtetik beherakoak: 15 €. • Tarifa BEREZIA: Eibarren erroldatutako, DBEren edo DBLeren onuradunak: 0 €. • Tarifa BEREZIA: Eibarren erroldatutako langabetuak: 0 €. • Tarifa BEREZIA: Eibarren erroldatutakoak, gurasoak langabezia dauzkaten 30 urtetik beherakoak: 0€.
Ordainketa moduak:	<ul style="list-style-type: none"> • Ordainketa banku-txartel bidez PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoan, egitea. • Banku-erakunde laguntzaile batean likidazio-dokumentuaren bidez ordainketa egitea. Banku-erakunde laguntzaileak: <ul style="list-style-type: none"> - Banco Santander. - Bankoa. - BBVA. - CaixaBank. - Kutxabank (BBK, Vital, Kutxa). - Laboral kutxa. - Nafarroako Rural Kutxa / Caja Rural de Navarra. - Sabadell Guipuzcoano.
Sail arduraduna:	Kultura.
Ebazpen organoa:	Ez dagokio.
Tramitazio epea:	Berehalakoa.
Isiltasun-izaera:	Ez dagokio.
Ebazpenaren kontrako errekurtsuak:	Ez dagokio.
Hurrengo tramiteak (prozedura):	<ol style="list-style-type: none"> 1. PEGORA: baldintzak betetzen direla eta dokumentazioa egokia dela konprobatu. <ul style="list-style-type: none"> • Doako txartelen kasuan, dokumentazioa eskaneatu, txartela egin eta interesatuari entregatu. • Ordaindu behar diren txartelen kasuan, ordainketa banku-txartel bidez egiten bada, tasa datafono bidez kobratu. Txartela egin eta interesatuari entregatu, ordaindu izanaren agiriarekin batera. • Ordaindu behar diren txartelen kasuan, ordainketa banku-erakunde laguntzaile batean egiten bada, likidazioa sortu eta interesatuari likidazio-dokumentua eman, ordainketa erakunde laguntzaile batean egin dezan eta ondoren, ordainketa egin izanaren justifikantea ekar dezan. Ordainketaren justifikantea eskaneatu, txartela egin eta interesatuari entregatu. 2. DIRUZAINNTZA: txartelen ordainketak kontabilizatu.
Lege-araudia:	<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu publikoak eman eta jarduera administratiboak egiteagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza fiskala.
Oharrak:	<p><u>Coliseoaren laguna txartelaren BALDINTZA OROKORRAK (erabilera arauak):</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Txartelak urtebeteko indarraldia du. Norberarena da eta ez beste inorena. • Txartela sarrerarekin batera erakutsi beharko da, ikuskizunetara, kontzertuetara edo Coliseora sartzean. • Txartel-titularrak sarrera bat eskura dezake ikuskizuneko (aretoaren edukieraren arabera). • Sarrerak leihatilan edo Kutxabanken orotarako kutxazainetan eskura daitezke; titularrak dagokion tarifa markatu beharko du.
Informazio lagungarria:	http://www.eibar.eus/eu/kultura/coliseo-antzokia